

ENE AMATXO)

«Jadanikan amatxo
otoi tzez Jaunari;
bi eskuak ikaran,
so kurutzeari».

Ba-dot amatxo, nik be,
biotzez maitea;
ez yat iñoiz agortzen
bere itza! ernea.

Ez dot bera mosutu
urte bi oneitan,
baiña bizi darabilt
lo ta itxar gogotan.

Beti eder ta sotil,
niretzat eztia,
aldiz zaartua zerbait.
edur uledia.

Oi, ene biotzeko!,
euki adorea:
naita zugandik urrin,
ondo da semea.

Begi emon neutzun, bai,
atzo arrats-beeran,
zeure auzo nintzala
amestu bait neban.

Baltz jantzia zakustaz,
amatxo samurra,
joan da-ta betiko
zure poz-izarra.

Eleizara jo dozu
malkotan biotza,
Jaun onari egiñik
eskari garratza.

«Jainko maite, errukior,
emen nozu aiez;
seme laztanagaitik
deskatzut arrenez».

Seme katez lotua
dakarzu gogora,
bat-batean asirik
ibaika negarra.

Legor, otoi, zotiñok,
ene biotzeko,
errai-barrena zeuskit
bestela lertuko.

Argia sartzen goitik
zutoin artean biei,
aingeruak dagio
samiñari poz-dei.

Obia gero zuk eder,
zurbil ta eraiña,
an be zuk, ene ama,
eskari bardiña.

Pago-zarbazta legez
zabal beso biak,
zure aienen barri
ba-dau illen zelaiak.

Gudan il semea
or eben eortzi,
ta il-obiko arbela
zutzat maitagarri.

Alboan zuri-gorri
lorak dira erne;
atz-puntaz bat ebai
ta or dozu gorde.

Buru makur, ondoren,
etxera bidean...
Seme bien gomuta
kilika muiñean.

AUSI ADI !

Ausi adi, itxas-ur, ausi!,
aitz-arteko zilo arrean...
Ire otsaren zurmur latza,
nork adirazo dan aiñean?

Aitz-ondoan leun ezarrita
begira nagokik ementxe...
Ire gaiñ eta ertz ugari
dabiitzaz aur, zar eta gazte.

Zoria ontsu, arrantzalea,
seska luzez ertzean adi;
baita itxas-koplakaria bere,
ontzi barruan leun kantari.

Izaro osteko kaira dator
eder ta ospetsu ontzia...
Or ete datorkit, itzuliz,
nik maitatu neban gaztia?

Ausi adi, itxas-ur, ausi!,
aitz-arteko zilo arrean...
Baiña estutu begit noizbait
joanaren esku zuria!

BIOTZ-AGURRA

I

Ego-aizetxo nekatu ezin,
nora oa onen arin?
Sasian garrasi,
loratzen ijuti,
aur bildur antzeko,
arnas ugari, egal zurizko,
zek arabil ain arinto?

II

Ez yak atsegin, noski, egoa
eta ipar aldera oa?
—Bai, olerkaria;
bee-alde atsia
betikoz itxirik,
ara naioak, biotza pozik,
zabala ukaldiz etenik.

III

Orrela ba'dok, aizetxo maite,
biotz-agur esku bete
eroan egik ara,
ene Erri maitera.
An daukezak eneak,
urri'n-oiñazez aurki josiak:
danai nire gorantziak.